



ESKOLAGUNE

## Ekoetxea Txingudi

# Lehen urrats berdeak: Sentsazioak ezagutuz

### Haur Hezkuntza 2. zikloa

**ARLOA/IKASGAIA:** Ingurunea ezagutzea  
eta esploratzea

Plaiaundik naturan abentura batean murgiltzeko deia egiten dizue! Esperientzia ahaztezina biziko duzue natura maitatzen eta babesten ikasten duzuen bitartean.

Iraunkortasunerako esperientzia honetan, Plaiaundiko hezegunearen benetako esploratzaile bihurtuko gara, bizitzaz, sekretuz eta mirari naturalez betetako lekua. Ekosistema sinestezin hori izango da gure oinarria gizakiaren eta naturaren arteko loturari buruz ikasteko eta gure ingurunea nola zaindu dezakegun hausnartzeko. Zatozte naturan ahaztezinak diren oroitzapenak goatzera, ikastera eta sortzera!